

2019/03/23

KOD.: A213

GIZARTE-LANA

***LEHEN ARIKETA
BIGARREN PROBA***

***Denbora, gehienez: 100 minutu
Galderak: 100.***

EREDUA:

D

- Ez ireki esan arte.
- Markatu, erantzun orrian, egokitu zaizun eredua.
- Proba bukatzean, hartu orri hauek, erantzun-orriaren kopia horia eta jarraibideen orria.
- Gogoan izan:
 - Asmatuak: 1,00
 - Baliogabeak, bikoitzak edo zuriak: ez da punturik kenduko.
- Ereduaren marka jartzen ez baduzu, edo oker jartzen baduzu, proba baliogabetu egingo da.
- Ez da erantzun-orri berririk emango ariketaren azken 5 minutuetan.
- Bukatzen duzunean, altxa eskua, eta antolakuntzako baten batek jasoko dizu orri zuria.
- Ez da azterketarik jasoko, banaka, azken 3 minutuetan. Bukatu baduzu, geratu zure lekuan, isilik, denak batera bildu arte.

Eskerrik asko zure laguntzagatik

1.- Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen arabera, eskubide-adierazpen hauen artean zein EZ DA EGIAZKOA?

- a) Gizarte-zerbitzuez berdintasunez, duintasunez eta pribatutasunez baliatzeko eskubidea
- b) Isilpekotasunerako eskubidea
- c) Balizko ezgaitasun-egoeretan eman beharreko laguntza edo artatzeetarako jarraibideak emateko eskubidea, eta nork bere burua zaintzeko eskubidea
- d) Norberaren aukeren arabera norberaren kasuari egokien doakion zerbitzu-mota eta -modalitatea libreki aukeratzeko eskubidea, eskuragarritasuna eta izendatutako erreferentziako profesionalaren agindu teknikoak gorabehera

2.- Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen arabera, zer da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa?

- a) Sistema publikoek eta Hirugarren Sektoreak bermatu behar dituzten diru-laguntzak eta zerbitzuak identifikatzen dituen tresna
- b) Euskal herri-administrazio eskudunek bermatu behar dituzten diru-laguntzak eta zerbitzuak identifikatzen dituen tresna
- c) Herritarrek gizarte-zerbitzuen sistemaren baitako zerbitzu eta prestazio ekonomikoen zorroa hautatzeko tresna
- d) Zerbitzu publikoen ezaugarriak, modalitate, helburu eta prezio publikoak onesteko tresna

3.- Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen arabera, Oinarrizko gizarte-zerbitzuei (OGZ) buruzko zein baieztapen EZ da egiazkoa.

- a) Oinarrizko gizarte-zerbitzua arreta-unitate bat da, polibalentea eta diziplina askotarikoa, udalen gizarte-zerbitzuen barruan dago eta herritarrek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemara iristeko duten lehen sarbidea da
- b) Oinarrizko gizarte-zerbitzuaren zeregin nagusia izango da gizarte-zerbitzuen bidez erantzuteko moduko zer-nolako beharrak dauden atzematea eta kargu hartzea. Horretarako, bere ardura izango du, dagokion lurralde horretan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren baitako atal batera nahiz bestera nork noiz joan behar duen koordinatzea eta kudeatzea.
- c) Oinarrizko gizarte-zerbitzuaren ardura izango da dagokion lurraldean Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren baitan Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien eta udalen esku utzitako gizarte-zerbitzuak ematea.
- d) Euskal Autonomia Erkidegoko udal guztiek izan behar dute, dela bakoitzak bere kasa edo dela beste udal batzuekin elkar hartuta, oinarrizko gizarte-zerbitzu bat

4.- Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen arabera, lurralde-kontseilu eta toki-kontseiluei buruzko zein baieztapen da egiazkoa?

- a) Foru-aldundiek eta udalek, bakoitzak bere lurraldearen eremuan, autoantolaketarako ahalmenaz dihardutela, gizarte-zerbitzuen kontseilua eratuko dituzte, nork bere eskumen-eremuko gizarte-zerbitzuei buruzko erabaki-organo gisa
- b) Kontseilu horien osaerak gizarte-zerbitzuen eremuan esku hartzen duten gizarte-eragileen parte hartzea bermatu behar du, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako herri-administrazioena ere, kasu bakoitzean dagokionarena. Halaber, gizonezkoen eta emakumezkoen artean ordezkaritza orekatua egon dadin zaindu behar du
- c) Gizarte-zerbitzuen lurralde-kontseiluen eta tokiko kontseiluen barruan ezin izango da Gizarte-zerbitzuen kontseilu sektorialik eratu, kontsultarako eta parte-hartzerako organo gisa, zeinek arlo jakin batean gauzatuko dute beren jarduerak.
- d) Kontseilu sektorialen eginkizunak, osaera eta funtzionamendu-araubidea Lege honetan ezarri dira

5.- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren arabera, hauek dira Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren prestazioak edo laguntza ekonomikoak lortzeko Erroldatze-baldintza orokorrak:

- a) Eskaera egiten den egunean erroldatuta egotea: a) zerbitzuak emango dituen tokiko erakundeari dagokion udalerrian, tokiko erakunde batek ematen dituenak lortzeko; b) dagokion Lurralde Historikoko udalerrri batean, Foru Aldundiak ematen dituenak lortzeko; c) Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri batean, Eusko Jaurlaritzak ematen dituenak lortzeko
- b) Udalerrri berean 3 urtez jarraian eta etenik gabe erroldatuta egotea
- c) Eskaera egiten den egunean erroldatuta egotea Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan, tokiko erakunde batek ematen dituen zerbitzuak lortzeko, Foru Aldundi batek ematen dituenak lortzeko eta Eusko Jaurlaritzak ematen dituen zerbitzuak lortzeko
- d) Eskaera egiten den egunean erroldatuta egotea, tokiko erakunde batek ematen dituen zerbitzuak lortzeko, Foru Aldundi batek ematen dituenak lortzeko eta/edo Eusko Jaurlaritzak ematen dituen zerbitzuak lortzeko

6.- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren arabera, Lehen mailako arretari buruzko balioespena eta gizarte-diagnostikoari buruzko baieztapen hauetatik zein EZ da egiazkoa:

- a) Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, Udal Gizarte Zerbitzuko gizarte-langile baten edo zerbitzu horretako beste profesional baten bitartez, premien hasierako balioespen bat egingo du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esku-hartzea bidezkoa ote den erabakitzeko.
- b) Profesional horrek hartuko du bere gain esku hartzeko oinarrizko prozeduraren hasierako fasean aipatzen den eginkizuna, eta, bereziki, premien hasierako balioespena eta, hala badagokio, hasierako gizarte-diagnostikoa.
- c) Hasierako balioespen horren emaitza gisa, profesional horrek honako hau adierazi behar du: kasuak ez duela eskatzen Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak esku hartzea; Azaldutako premia esku-hartze puntual baten bitartez estali daitekeela; edo litekeena dela jarraipena egitea eskatzen duen esku-hartze bat beharrezkoa izatea.
- d) Kasu horietan, erreferentziazko profesionalak hasierako gizarte-diagnostikoa egingo du, baita balioespen espezializatua eta diagnostiko espezializatua, eta haietatik ateratzen diren emaitzen arabera, eskatzaileak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistematik lortzeko aukera izango duen prestazio ekonomikoen eta/edo zerbitzuen sorta ezarriko du

7.- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren arabera, udal-eskumeneko zerbitzuak eta prestazio edo laguntza ekonomikoei buruzko baieztapen hauetako zein da egiazkoa?

- a) Udal-eskumenekoak dira, besteak beste: informazio-, balioespen-, diagnostiko- eta orientabide-zerbitzua; gizarte-eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua; eguneko arretarako eta ostatu zerbitzuak
- b) Udal-eskumenekoak dira, besteak beste: gizarte-zerbitzuen eremuko parte-hartzea eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzua; etxez etxeko laguntza-zerbitzua; garraio egokituko zerbitzua
- c) Udal-eskumenekoak dira, besteak beste: etxez etxeko laguntza-zerbitzua; eguneko arretarako zerbitzua; eguneko arretarako zerbitzuak; adinekoentzako egoitza-zentroak; genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako egoitza-zentroak
- d) Udal-eskumenekoak dira, besteak beste: telelaguntza-zerbitzua; informazio-, balioespen-, diagnostiko- eta orientabide-zerbitzua; zaintzaileei laguntzeko zerbitzua

8.- Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzen duen apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuaren arabera, zein dira gizarte-zerbitzuen erabiltzaileek beren eskubideak ezagutu eta defendatzearen inguruak dituzten eskubideak? Adierazi aukera OKERRA:

- a) Idatziz eta ahoz informazioa jasotzea –bakoitzaren ulermenari egokituriko hitzekin, eta, hala behar izanez gero, premia berezietara egokituriko euskarri edo formatuarekin–, ondokoak direla-eta: dekretu honek aitortzen dituen eskubideak, dekretua aplikatzeko eta garatzeko arauetan jasotakoak, eta gizarte-zerbitzuetako zentro eta zerbitzuen funtzionamendurako estatutu eta arauetan ezarritakoak
- b) Hala bada, idatziz eskuratu ahal izatea arretarako banakako plana, eta plan horretan definitzen diren zerbitzuak jasotzeko modua eta baldintzak
- c) Beharrak edo premiak ebaluatzeko eta arretarako banakako plana lantzeko egiten diren elkarrizketetan, aholkua emateko gai den konfiantzazko pertsona baten edo gehiagoren laguntza izatea ala ez
- d) Lanaren edo funtzio publikoaren esparruan aplikatzekoak diren lege eta hitzarmen kolektiboetan zein lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmenetan onartzen zaizkien eskubide guztiak

9.- Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen 2016-2019 Plan Estrategikoaren arabera, badira zerbitzu eta prestazioen etorkizuneko eskaria baldintza dezaketen zenbait faktore. Adierazi OKERREKO erantzuna:

- a) Adinekoen kopuruak eta, bereziki, 75 urte edo gehiago dituztenen kopuruak gora egitea, eta horrekin batera, mendetasun-egoeran edo arriskuan daudenen kopuruak ere gora egitea
- b) Zainketa informaleko eredia dibertsifikatzea eta, epe motz-ertainera, zainketa formalaren eta informalaren arteko orekan muturreko aldaketa, zainketa formala indartu behar delarik
- c) Krisialdiak premietan eta mota guztietako baliabideetan izan duen eragina
- d) Norbanakoari zuzenduriko errehabilitaziorako arreta indartzeko premia, esku-hartze sozial komunitarioaren kaltetan

10.- Gasteizko Udalaren egungo Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoak Udalaren gizarte-zerbitzuen egitekoa definitzen du. Adierazi erantzun zuzena:

- a) pertsonen gizarteratzea bideratzeko arduradunak gara, pertsona eskatzaileengan zein gizartean komunitate integratzaileak eraikitzeke beharrezko aldaketak sustatzen ditugularik
- b) herritarrengandik gertuen dagoen gizarte-zerbitzuen sare publikoa gara. Gasteizen bizi diren pertsonen autonomiaren eta gizarte-ongizatearen alde lan egitea da gure egitekoa, komunitatea eratuz
- c) Udalerriko herritar guztiengana zuzentzen diren gizarte-zerbitzuak gara, eta beren bizi-proiektua autonomiaz garatzeko aukera galarazten dieten premiak dituzten pertsonekin egiten dugu lan berariaz, proiektu hori erdiesteko adina baliabide eskurazten dizkiegularik
- d) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren atea gara, eta beste sistema eta politika publiko batzuekin koordinatuta, gure zeregina herritarren behar sozialei erantzutea da

11.- Gasteizko Udalaren egungo Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoak Udalaren gizarte-zerbitzuen printzipio gidariak definitzen ditu, honako hauek:

- a) Erantzukizun publikoa, elkartasuna eta globaltasuna
- b) Unibertsaltasuna, elkartasuna eta parte-hartzea
- c) Unibertsaltasuna, globaltasuna/integraltasuna, gizarte-berrikuntza, gizarte-inbertsioa eta parte-hartzea
- d) Normalizazioa-integrazioa, parte-hartzea eta deszentralizazioa

12.- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte-diagnostikoa egiteko tresnari buruzko maiatzaren 28koa 353/2013 Dekretuaren arabera, Fitxa Sozialak bilduko du Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek pertsona erabiltzaileari harrera egiteko arrazioa, sistemaren jarduketako esparru orokorrak aintzat hartuz. Adierazi OKERREKO erantzuna:

- a) Gizarte-zerbitzuetako sistemaren eta beste sistema batzuen zerbitzu eta prestazioei buruzko informazioa biltzeko
- b) Mendetasunari erantzutearekin, babes-ezarekin eta gizarte-bazterkeriarekin zerikusia duten gaiei buruz
- c) Lan-orientazioa eta diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemarekin zerikusia duten gaiei buruz
- d) Gizarte parte-hartzearekin zerikusia duten gaiei buruz

13.- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gizarte-diagnostikoa egiteko tresnari buruzko maiatzaren 28koa 353/2013 Dekretuaren arabera:

- a) Gizarte-diagnostikoa da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren arreta eskatzen duten pertsonen gizarte-beharrizanen deskripzio eta balioespen profesionala, esku-hartze egokia zein den zehazteko balio duena
- b) Diagnostikoa pertsonen esku-hartze intentsioa behar duela iritzi aldiko egingo da
- c) Gizarte-diagnostikoak pertsona eskatzaileak eskatutako zerbitzu eta prestazioak erakutsiko ditu, bai eta eskubide dituenak ere
- d) Gizarte-diagnostikoak, tresna legez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren arreta jasotzeko eskatzaileak bete beharreko eskakizunak jasotzen ditu.

14.- Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresna onartzen duen uztailaren 16ko 385/2013ko dekretuaren arabera, Dimentsioen arabera ordenatutako adierazleen zerrenda bat biltzen du, aldi berean funtsezko bost esparrutan antolatutako adierazleak izanik:

- a) Ekonomia, lana eta egoitza arlokoa, bizikidetzaren arlokoa, pertsonala, osasun arlokoa eta gizarte arlokoa
- b) Ekonomia, lana eta egoitza arlokoa, familia arlokoa eta komunitate arlokoa
- c) Ekonomia, lana eta egoitza arlokoa, eskola arlokoa, familia arlokoa eta gizarte arlokoa
- d) Ekonomia, lana eta egoitza arlokoa, eskola arlokoa, gizarte eta osasun arlokoa eta gizarte arlokoa

15.- Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak bi osagai funtsezko izango ditu:

- a) Prestazio ekonomikoak eta gizarteratzen eta laneratzen laguntzeko tresnak
- b) Eskubidezko prestazio ekonomikoak eta dirulaguntzak
- c) Gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarritzko errenta eta laneko diru-sarrerak osatzeko errenta
- d) Aurreko baieztapen guztietatik ez dago egiazko bat ere.

16.- Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea eten egingo da, edozein izanik ere errenta horren modalitatea, arrazoi hauengatik:

- a) Eskubidea aitortzeko eskatzen diren baldintzetakoren bat aldi batean galtzea
- b) Titularrak edo haren bizikidetzaren unitateko kideren batek prestazioa eskuratzean bere gain hartutako betebeharren bat aldi batean ez betetzea
- c) Arau-hauste bat baino gehiago batera gertatzea, lege honen 104. artikuluan aurreikusten den moduan
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

17.- Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuari dagokionez, honako pertsonak edo pertsona-taldeak hartuko dira bizikidetzaren unitatez:

- a) Etxebizitza edo bizitoki batean bakarrik bizi diren pertsonak, eta talde horretatik kanpo geratuko dira, bakarrik bizi izanda ere, beste pertsona batzuekin ezkontza bidez edo ezkontzakoaren antzeko beste harreman iraunkorren baten bidez lotuta daudenak, zenbait salbuespen izan ezik
- b) Etxebizitza edo bizitoki berean elkarrekin bizi diren bi pertsona edo gehiago, elkarren artean ezkontzaren bidez edo ezkontzaren antzeko harreman iraunkor baten bidez batuta daudenean, edo laugarren mailarainoko odol-ahaidetasunagatik edo bigarren mailarainoko ezkon-ahaidetasunagatik, edo familia-harrerako harreman iraunkor batengatik edo adopzio aurreko edo tutoretzapeko harreman batengatik batuta daudenean
- c) Errentamendu-kontratu baten titularra den pertsona, edozein modalitatetan, b) idatz-zatian aurreikusitako loturaren batekin lotuta ez dagoen beste pertsona batzuekin etxebizitza edo bizitoki berean bizi dena, premia larriko benetako egoeren ondorioz
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

18.- Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzko urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuak, prozedura izapidetzeaz:

- a) EAeko edozein udalek udalak izapidetuko du espedientea, eskatzailea udal horretara jo duelarik
- b) Eusko Jaurlaritzak eskabidearen edukia eta aurkeztutako dokumentazioa egiaztatuko ditu, baita gizarte-larrialdietarako laguntzak emateko baldintza espezifikoak betetzen ote diren ere
- c) Akats edo kontraesanik atzemanaz gero, Eusko Jaurlaritzak atzera egindakotzat joko du eskabidea
- d) Aurreko baieztapen guztiak okerrak dira

19.- Gasteizko Udalaren Prestazio Ekonomikoen Programa arautzen duen Ordenantzak (2017) salbuespen-egoerak proposatzeko aukera ematen die Udalaren gizarte-zerbitzuetako langileei, irizpide hauek aintzat harturik:

- a) Bizikidetzaren unitatean adingabekorik, adinekorik, dibertsitate funtzionala duen pertsonarik edo gaixorik dagoen, zeinentzat premia-premiazko gaien gabezia arrisku berezia izan bailitekeen
- b) Momentua laguntza emateko egoki egiten duten zirkunstantziak egokitzen diren, baldintzak bete arte itxoiteak desagerraraz ditzakeenak
- c) Pertsonak ez badu betetzen udalerrian sei hilabete lehenagotik erroldatuta egotea eskatzen duen baldintza, alderdi hauek hartuko dira kontuan salbuespena egin behar den baloratzeko: Laguntza familiarra, soziala eta afektiboa emateko sarerik duen bertan; osasunaren alorrekoak; etxebizitza posiblea; prestakuntza; irizpide humanitarioak, eta asilo edo babesleku ematearen ingurukoak
- d) Aurreko baieztapen guztiak zuzenak dira.

20.- Gasteizko Udalean, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa:

- a) Zerbitzu horien kostua finantzatzen laguntzera bideratzen da, beti ere baldin eta haiek eskuratzeko ebazpena ematen den unean prestazio ekonomikoa lotua dagoen zerbitzuko bete gabeko lekuak esleitzeko zerrendan itxoitzen dagoen beste eskatzaile bati badago.
- b) Eskubide gisa eratzten da mendetasun-arriskuan dauden edo I. graduko mendetasuna aitortua duten pertsonentzat, hori eskuratu ahal izateko berariaz arautzen diren baldintzak betetzen badituzte
- c) Mendetasun-arriskua nahiz I. graduko mendetasuna egokitzen delarik aitortzen da. Izaera finalista du eta aldi baterako da
- d) Aurreko baieztapen guztiak zuzenak dira

21.- Hauxe da Gasteizko Udalaren ostatu emateko zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoen gehieneko zenbatekoa:

- a) Oinarrizko babes-maila, prestazioak eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten guztiei aplikatuko zaiena, hileko 300 €-koa da
- b) Babes-maila osagarria, erroldaren eta benetako bizilekuaren arloko baldintzak egiaztatzen dituztenei aplikatuko zaiena, mugagabea da
- c) Oinarrizko babes-maila, prestazioak eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten guztiei aplikatuko zaiena, hileko 426 €-koa da
- d) Babes-maila osagarria, erroldaren eta benetako bizilekuaren arloko baldintzak egiaztatzen dituztenei aplikatuko zaiena, hileko 508 €-koa da

22.- Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko 3/2005 Legearen arabera, oinarrizko gizarte-zerbitzuen esku-hartzea:

- a) Oinarrizko gizarte-zerbitzuek kasua hartu eta ikertu egin beharko dute, baloratu eta bideratu, eta, beharrezkoa baderitzote, komunitatearen esparrutik esku hartu beharko dute
- b) Larritasun ertaineko haurraren babesgabezia-egoeraren bat dagoela iruditzen bazaie, lurralde-zerbitzu espezializatuari jakinarazi beharko diote
- c) Haurraren babesgabezia-egoera oso larria dela iruditzen bazaie, balorazio espezializatua egin eta lurralde-zerbitzu espezializatuari jakinarazi beharko diote
- d) Aurreko baieztapen guztiak zuzenak dira

23.- 8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duena. Adingabeek beren interes gorena interpretatu eta aplikatzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- a) Adingabeak bizitzeko, bizirauteko eta garatzeko duen eskubidea babestuko da, eta haren oinarrizko premia materialak, fisikoak eta hezkuntzakoak aseko dira, baita emozionalak eta afektiboak ere
- b) Adingabearen nahiak, sentimenduak eta iritzia kontuan hartuko dira, baita haren interes gorena zehazteko prozesuan progresiboki parte hartzeko duen eskubidea ere, betiere adingabearen adina, heldutasuna, garapena eta bilakaera pertsonalaren arabera
- c) Adingabearen bizitza eta garapena indarkeriarik gabeko familia-testuinguru egoki batean oinarrituta egotea komeni da. Adingabearen identitatea, kultura, erlijioa, usteak, orientazio eta identitate sexuala eta hizkuntza babestuko dira. Adingabeak ez du inolako bereizkeriarik jasango arrazoi horiek edo beste baldintza batzuk direla-eta, desgaitasuna barne
- d) Aurreko baieztapen guztiak zuzenak dira

24.- Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen arabera, bertan ezarritako eskubideen titularrak izango dira ondorengo baldintzak betetzen dituzten espainiarrak:

- a) Mendetasunen bat dutenak, legean zehazten den mailetakoren batean
- b) 3 urtetik beherako haurren kasuan, hamahirugarren xedapen gehigarrian esaten dena bete beharko da
- c) Espainiako lurraldean bizi direnak, eta bost urtez hala egin badute; horietako bi justu eskaria aurkeztu aurrekoak izan beharko dira
- d) Aurreko baieztapen guztiak zuzenak dira

25.- Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babes emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren arabera, honela egiaztatu behar dira genero-indarkeriazko egoerak:

- a) Genero-indarkeriako delitu batengatiko epai kondenatzaile batez, babes-agindu batez edo biktimaren alde kautelazko neurri bat agintzen duen beste edozein ebazpen judizialen bitartez, edo, bestela, Fiskaltzaren txosten baten bitartez. Gizarte-zerbitzuen, zerbitzu espezializatuen edo Administrazio Publiko eskudunaren genero-indarkeriaren biktimentzako harrera-zerbitzuen txosten baten bitartez ere egiaztatu ahalko dira
- b) Soilik genero-indarkeriako delitu batengatiko epai kondenatzaile batez, babes-agindu batez edo biktimaren alde kautelazko neurri bat agintzen duen beste edozein ebazpen judizialen bitartez,
- c) Soilik gizarte-zerbitzuen, zerbitzu espezializatuen edo Administrazio Publiko eskudunaren genero-indarkeriaren biktimentzako harrera-zerbitzuen txosten baten bitartez
- d) Soilik edozein polizia indarrek emandako txosten bidez

26.- Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babes emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren arabera, etxebizitzatik irteteko, etxebizitzatik urruntzeko edo komunikazioak eteteko neurriak (adierazi erantzun zuzena):

- a) Epaileak agindu ahal izango du genero-indarkeriaren ondoriozko erruztatuak nahitaz irtetea egoitza, familia-unitateak egoitza horretan egin duenean elkarbizitza edo egoitza horretan duenean bizilekua, bai eta egoitzara itzultzeko debekua ere
- b) Epaileak erruztatuari debekatu ahal izango dio babestutako pertsonarengana hurreratzea; debeku horrek berarekin dakar babestuarengana ezin hurreratzea, hori edozein tokitan dagoela, bai eta haren egoitzara, lan egiteko lekura edo hura maiztasunez joaten den lekuetara ezin hurreratzea ere
- c) Urruntze-neurria hartuko da beti, nahiz eta ukitutako pertsona lekutik alde aurretik irten ez balu ere
- d) Epaileak erruztatuari zehaztutako pertsonarekin edo pertsonekin komunikatzeko baimena emango dio, zigor-erantzukizunik gertatuko ez delarik

27.- Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. akordioaren arabera, emakume batek delituren baten biktima izan eta edozein Oinarrizko Gizarte Zerbitzutara jotzen duenean, honako urratsak emango dira:

- a) Biktimak osasun laguntza eskatzen duten lesiorik badu, edo nahiz eta ez ikusi zauriak dituela uste bada, dagokion medikuarengana eraman beharko da, beharrezkoa baldin bada
- b) Biktimak osasun laguntzarik behar ez badu, arreta egokia eta lehentasunezkoa emango zaizkio, bere egoera emozional berezia kontuan hartuz, betiere
- c) Emakumearen segurtasuna edo osotasun fisikoa arriskuan badago, SOS Deiak zerbitzura, Ertzaintzara edo Udaltzaingora deitu beharko da, laguntza eske. Poliziari Oinarrizko Gizarte Zerbitzura edo biktima babesteko toki egokienera joateko eskatu beharko zaio.
- d) Aurreko urrats guztiak zuzenak dira

28.- Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. akordioaren arabera, printzipio hauen arabera jokatu behar da:

- a) Laguntza osoa eta pertsonalizatua, berdintasuna, prebentzioa, adingabeen interesen defentsa, eraginkortasuna eta arintasuna, eta ahalik eta biktimizazio txikiena
- b) Laguntza osoa, babes eta salaketa
- c) Prebentzioa, babes eta jardunbide egokien sustapena
- d) Prebentziozko jarduerak, harrera eta berehalako arreta

29.- Gizarteratzeko IV. Euskal Planak (2017-2021) honela definitzen ditu pertsonak bizi ditzaketen egoerak (adierazi aukera zuzena):

- a) Gizarteratze-egoera kausa askotarikoa da, pertsonak egungo gizarte-babeseko sistemak behar bezala baliatzearekin du zerikusia
- b) Pertsonen gizarteratzea soilik ikuspegi materialetik ulertu behar da
- c) Gizarte-bazterketako arriskuko egoerak ez dute zer ikusirik ezaugarri pertsonalekin, arau-testuinguruarekin baizik
- d) Ereku geografiko pobretu eta gizarte-zerbitzu urriko batean bizi diren pertsonak daude gizarte-bazterketa egoeran

30.- Hauek dira Gizarteratzeko IV. Euskal Planaren (2017-2021) helburu estrategikoetako batzuk:

- Enplegu prekarioa eragiten duten prozesuak prebenitzea eta haiei aurre egitea, gazteen eta/edo enplegua lortzeko zailtasun handienak dituzten laneratzea bultzatzea eta Euskal Enplegu Sistema hobetzea
- Diru-sarrerak bermatzeko euskal eredia babestea eta hobetzea, bere legitimotasun soziala eta datozen urteetarako jasangarritasun ekonomikoa bermatuz
- Gizarte-zerbitzuen Legearen garapena bultzatzea, hala, euskal herritar guztiak zerbitzu horiez gozatzeko duten eskubide subjektiboa eraginkorra izan dadin
- Erantzun guztiak zuzenak dira

31.- Europako Etxegabetasunaren eta Bizitegi Bazterketaren Tipologiaren (ETHOS) 2007ko Etxegabetasuna “etxebizitza desegokia” kontzeptu-kategorian honako kategoria operatiboak sartzen dira:

- Aldi baterako eta ezohiko egituretan bizi direnak, bizitegi desegokia eta larregizko pilaketa
- Aldi baterako eta ezohiko egituretan bizi direnak, etxegabetze-mehatxupean bizi direnen pertsonak eta bikotekideen edo familiaren indarkeria-mehatxupean bizi direnak
- Bizitoki desegokia, larregizko pilaketa eta asilo-eskatzaile eta etorkinentzako bizitokietan daudenak
- Eremu publikoan bizi direnak (aire zabalean), eta gaueko babeslekuan lo egiten dutenak edota egunean zenbait ordu eremu publikoan eman behar dituztenak

32.- Etxerik gabeko pertsonentzako euskal strategiaren arabera, etxegabetasuna kausa-multzo hauen arteko elkarreagin dinamikoaren ondorioz sortutako prozesua da:

- Kausa egiturazkoak, instituzionalak, erlazionalak eta pertsonalak
- Kausa laboralak, ekonomikoak eta etxebizitzakoak
- Babes-faktoreak eta arrisku-faktoreak.
- Etxebizitzaren galera, produktu toxikoen kontsumoa, indarkeria eta pobrezia

33.- Pertsona ezinduen eskubideei buruzko hitzarmenak (2006) honako betebeharrak betetzeko konpromisoa ezartzen die estatu sinatzaileei (adierazi erantzun zuzena):

- Konbentzio honetan aitortutako eskubideak eragingarri egiteko neurri egoki guztiak hartzea, legegintzakoak, administratiboak nahiz beste izaera batekoak
- Egoki diren neurri guztiak hartzea, legegintzako neurriak barne, indarrean dauden legeak, erregelamenduak, ohiturak eta praktikak aldarazi edo indargabetzeko, halakoek bereizkeria egiten dutenean
- Kontuan hartzea, politika eta programa guztietan, pertsona ororen giza-eskubideen babesa eta sustapena
- Egoki diren neurri guztiak hartzea, pertsona, erakunde edo enpresa pribatuek desgaitasun-arrazoiengatik kontratatu dezaten

34.- Kontzientzia hartzeari dagokionez, Pertsona ezinduen eskubideei buruzko hitzarmenak (2006) dio Estatu alderdiek konpromisoa hartzen dute, hurrengoei dagokienez berehalakoak, eragingarriak eta egokiak diren neurriak hartzeko:

- Gizartea sentsibilizatzea, baita familia-mailan ere, kontzientzia gehiago har dezan pertsona desgaituei begira, eta pertsona horien eskubideak eta duintasuna errespetatu dadila suspertzea
- Bizitzako esparru guztietan borrokatzea pertsona desgaituei begira dauden estereotipoen, aurreiritzien eta eginera kaltegarrien aurka, baita generoan edo adinean oinarritutakoen aurka ere
- Pertsona desgaituen ahalmenen eta ekarpenen inguruan kontzientzia har dadila sustatzea
- Aurreko baieztapen guztiak zuzenak dira

35.- Etxeko Laguntza Zerbitzuaren hartzailerak izan daitezkeen gizatalde hauek ezarri ditu Gasteizko Udalaren Gizarte Politiken Sailak:

- 12/2008 Legearen arabera gizarte-zerbitzuetarako eskubide subjektiboa duten kolektiboak
- Mendetasun-egoeran edo arriskuan dauden pertsonak, eta mendetasun-egoeran edo arriskuan dauden pertsonak zaintzen dituzten familiak
- 65 urtetik gorako pertsonak, baldin eta mendetasun-egoeran edo -arriskuan badaude eta profesionalen balioespena badute
- 65 urtetik gorako pertsonak, eguneroko jardueretan aritzeko arazoak dituztenak; mendetasun-egoeran edo arriskuan dauden pertsonak; behin-behineko krisi egoeran dauden pertsona/familiei; adingabeak zaintzeko gabeziak dituzten familiak

36.- Gasteizko Udalaren Programa Komunitarioak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak hiru motakoak dira:

- Gizartea informatzea eta sentiberatzea

- b) Gizarte gaitasuna eta hazkuntza pertsonala
- c) Komunitate parte-hartzea eta elkartasunezko laguntza
- d) Aurreko hiru aukerak zuzenak dira.

37.- Nori zuzentzen zaizkie Gasteizko Udalaren Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailak antolatzen dituen Emozio lantegiak?

- a) 18 urte beherako haur eta nerabeei
- b) 18 urte beherako haur eta nerabeen familiei
- c) Familia, irakasle eta profesionalei
- d) 3 eta 18 urte bitarteko mutil eta neskei, irakasleei eta gizarte-eragileei

38.- Nori zuzentzen zaizkie Gasteizko Udalaren Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailak antolatzen duen Erresilientzia Familiar Programa?

- a) Udalaren gizarte-zerbitzuek haur-babesgabetasun egoeradun gisako baloratu dituen familiei
- b) Adingabeen artean kalte emozionalik sumatzen diren familiei
- c) Babesgabezia egoeran dauden adingabeei eta horien familiei
- d) Aurreko guztiak okerrak dira.

39.- Zer da Gasteizko Udalaren Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailak antolatzen duen Adinekoak zaintzen dituzten familiei laguntzeko programa?

- a) Banako edo familientzako laguntza psikosoziala emateko programa, zeinaren helburua horien estresa gutxitzea eta baliabide instrumental eta emozionalak eskaintzea den
- b) Taldeko esku-hartzeko programa bat da, zeinean senitaratean adinekoak zaintzen dituzten pertsonak biltzen diren, batez ere elkarri laguntzeko taldeen modalitatean
- c) Beren adinekoak familia giroan zaintzen dituzten familiei laguntzeko programa komunitarioa, adinekoa familiaratean zaintzen jarraitzerik izan dezaten ahalbidetzen du, ahalik eta baldintzarik hobereenetan
- d) Aurreko guztiak okerrak dira.

40.- Zer da Gasteizko Udalaren Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailaren Harrera sozialerako udal zentroa?

- a) Harrera zentro bat, iragaitzako jendearentzat
- b) Gaueko harrera-zentroa, gizarte bazterkeriako edo etxebizitzarik gabeko egoera larrian dauden pertsonentzat.
- c) Ostatu eta bizikidetzat baliabidea, gizarte bazterkeriako edo etxebizitzarik gabeko egoeran dauden pertsona eta familientzat
- d) Eguraldi txarreko urteko garaian gauez harrera egiteko zentroa

41.- Zer da Gasteizko Udalaren Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailaren intentsitate handiko Hurbil taldea?

- a) Etxerik gabeko pertsonen Arreta emateko hezitzaileen lantaldea
- b) Gizarte-bazterkeriako egoera larrian dauden eta laguntza jarraitua eta gainbegiratu behar duten pertsonen arreta psikologikoa emateko lantaldea
- c) Diziplinarteko lantaldea, gizarteratze helburuak lortzeko arreta profesional jarraitua behar duten pertsonen arreta psikosozial eta gizarte-hezkuntzako eskaintzeko
- d) Bizitegi-bazterketa egoera larrian dauden pertsonen arreta emateko lantalde psikosoziala

42.- Gasteizko Udalaren Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailaren Adinekoentzako zentro soziokulturalek bazkide-txartela egiten diete:

- a) 60 urtetik gorako pertsonen, baita beraiekin bizi diren ezkontideak edo senide hurbilenei
- b) 60 urtetik gorako pertsonen, baita horien ezkontideak nahiz antzeko afektibitate harremanen bat dela medio haiei loturik dauden pertsonen ere, adin hori betea izan eta haren etxebizitzan bizi badira
- c) 60 urtetik gorako pertsonen, baita horien ezkontideak nahiz antzeko afektibitate harremanen bat dela medio haiei loturik dauden pertsonen ere, adin hori betea ez izan arren
- d) Erretiroaren pareko egoeran dauden 55 urtetik gorako pertsonen

43.- Nori zuzentzen zaizkie Gasteizko Udalaren Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailak antolatzen dituen Emozio lantegiak?

- a) 60 urtetik gorako adinekoei, baldin eta familiararen laguntzarik ezagatik elikatzeko oinarritzko beharra betetzeko zailtasunak badituzte

- b) 60 urtetik gorako adinekoei, baldin eta kultur dependentziagatik edo zailtasun ekonomikoengatik elikatzeko oinarritzko beharra betetzeko zailtasunak badituzte
- c) 60 urtetik gorako adinekoei, baldin eta eguneroko oinarritzko jarduera bat –bazkaltzea– harreman giro osasuntsu eta atseginean egin nahi badute, aldi behin edo maiztasunez
- d) Aurreko baieztapen guztiak zuzenak dira.

44.- 2015-2020rako Zahartze Aktiborako Euskal Estrategiak kontzeptu- eta etika-esparru sendoa du, pertsonak ardatz dituen Hori dela eta, printzipio hauetan oinarritzen dira, hala estrategia gauzatzeko jarraitutako prozesua nola bertan aurkezten diren proposamenak eta neurriak:

- a) Duintasuna, autonomia, parte-hartzea, eta erantzunkidetasuna
- b) Duintasuna, autonomia, parte-hartzea, eta isilpekotasuna
- c) Duintasuna, autonomia eta zahartze aktiboa
- d) Duintasuna, parte-hartzea eta elkartasuna

45.- IMSERSOren arabera (2008), zahartzea da (adierazi erantzun OKERRA):

- a) Adinean gora egiteko bizi-prozesu dinamikoa, zeinak ondorio multidimentsionalak dituen, batez ere biologikoak, soziologikoak eta kulturalak
- b) Organismoaren eraldaketa fisiko eta biologiko atzerazina, zeinean gorputz-funtzioek denboraren joana pairatzen duten
- c) Geruza sozial jakin batean kokatzea, zeinean gizarte-dinamikaren baitako zeregin eta rol jakin batzuk beteko diren, horien arteko gehienak gizarte-ohitura eta -usteek baldintzatuta
- d) Zahartzaroa ezintasunaren eta mugaren sinonimoa da

46.- Adierazpen hauetatik, zein da adineko pertsonen egotzitako mitoa?

- a) Adineko pertsonen aukera asko dituzte
- b) Zahartzeak sexualitateari uko egin beharra dakar
- c) Zahartzaroa bizi-etapa berezia da
- d) Zahartzaroa ez da adin jakin batean hasten, une aldakor eta norberaren kasuan berezi batean baizik

47.- Adinekoek zenbait modutan har dezakete parte Adinekoentzako zentro soziokulturaletan (adierazi erantzun OKERRA):

- a) Zentroko bilera orokorra
- b) Zentro bakoitzeko adinekoen kontseilua
- c) Jarduera batzordeak
- d) Zentroko kudeaketa ekonomikoko batzordea

48.- Honela definitzen da, gaur egun, zainketa informalearen kontzeptua:

- a) Emakumeek etxean egiten duten lan ordaindua
- b) Pertsonen ongizate fisiko, psikiko eta emozionala ematera bideratuta –aintzat hartuta behar horiek desberdinak direla bizitzaren une desberdinetan– senideren batek edo beste pertsona batek ordaindu gabe burutzen dituen jardueren multzoa
- c) Mendetasun-egoeran dauden adinekoei egoitza-zentroetan edo eguneko arreta zerbitzuetan ematen zaien arreta
- d) Mendetasun-egoeran dauden pertsonen zuzendutako arreta soziosanitarioko zainketa-plana

49.- Zein aldagaik dute zerikusirik zaintza beharrekin? Adierazi OKERREKO erantzuna:

- a) Zaintzen beharra handiagoa da emakumeen artean
- b) Zaintzen beharra areagotu egiten da adinarekin, batez ere 65 urte edo gehiagorekin
- c) Zaintzen beharra urritu egiten da zenbat eta handiagoa izan ikasketak maila
- d) Zaintzen beharra ez da klase sozialaren arabera aldatzen, ez gizonezkoengan, ez emakumeengan

- 50.- Haur-babesgabetasun egoera desberdinek esku-hartze mota desberdina eskatzen dut. Adierazi erantzun zuzena:
- Arrisku ertaineko egoerek bigarren mailako prebentzioko programen bidezko esku-hartzea eskatzen dute
 - Babesgabetasunaren aurreko kalteberatasun egoerek lehen mailako prebentzioko programen bidezko esku-hartzea eskatzen dute
 - Arrisku arineko egoerek bigarren mailako prebentzioko programen bidezko esku-hartzea eskatzen dute
 - Babesgabetasun egoerek familia babesteko programa espezializatuen bidezko esku-hartzea eskatzen dute
- 51.- Hauek dira Larritasun ertain, handi edo oso handiko babesgabetasuna dagoela zehazteko baldintzak:
- Haur edo nerabe baten oinarrizko premia bat edo hainbat premia asetzen direla bermatzeko erantzukizuna duten pertsonak ez dute erantzukizun hori betetzen (ezin dutelako edo ez dutelako nahi). Edo pertsona horiek haurraren edo nerabearen beharrak asetzea saihesten duten kanpoko baldintza jakin batzuk gertatzen dira
 - Egoera horren ondorioz, haurrak edo nerabeak osasunean, ongizatean eta/edo garapenean kalte esanguratsu bat pairatu du edo pairatzeko arriskua dago
 - Familiaren laguntza-sareak ez dio egoera horri aurre egiten eta ez ditu haurraren edo nerabearen beharrak asetzen.
 - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira
- 52.- 152/2017 Dekretuaren arabera, eta “ezgaitasuna haurraren edo nerabearen portaera kontrolatzeko” babesgabetasun-motari dagokiolarik, noiz gertatzen da larritasun ertaineko egoera?
- Bizikidetzaz oso zaila da. Hala ere, bai gurasoek, bai haurrak edo nerabeak, laguntza profesionala onartu dute beren zailtasunak konpontzeko eta haurra edo nerabea familia-etxebizitzatik irtetea saihesteko
 - Haurraren edo nerabearen jokabidea oso gatazkatsua da etxean. Baliteke arazoak konpontzeko ahalegin batzuk egin izana. Bizikidetzaz zaila da, baina guraso-figuren eta haurraren edo nerabearen arteko harremanean alderdi positibo batzuk badaude. Gatazka larriagotzeko arriskua dago
 - Bizikidetzaz bideraezina edo jasanezina da. Ez dago aukerarik laguntzako esku-hartze bat garatzeko eta haurra edo nerabea etxean mantentzeko, hark edo/eta haren aitak, amak edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonak uko egin diotelako edo lankidetzarako prest ez daudelako
 - Gatazka batzuk daude guraso-figuren eta haurraren edo nerabearen artean, baina horien arteko harremaneko alderdi garrantzitsu batzuk positiboak dira. Arazoak konpontzeko ahalegin batzuk egin dira, baina agian ez dute arrakasta izan
- 53.- Aukera hauen artean, zein EZ da emaitza onenak ematen dituzten guraso-hezkuntzako programa psikoedukati boen (hemendik egokituta: Kumpfer eta Alvarado, 2003) ezaugarrietako bat?
- Teorian oinarritua eta eskuliburuan jasoa
 - Familiaren zentratua eta eskuragarria
 - Denbora banaketa egokia eta intentsitate nahikoa
 - Talde-babesa eta xede-populazioa
- 54.- Zer adierazi nahi du “jardunbide egoki” kontzeptuak?
- Printzipio, helburu eta prozedura egokien arabera gidatutako eta emaitza positiboak eman dituen esperientzia oro, testuinguru jakin batean eraginkorrak eta erabilgarriak direla erakutsi dutelarik
 - Herritarren esperientzia praktikoen multzoa, gure zeregin profesionalean txertatzen duguna
 - Gizarte-zientzietan eskuraezinak diren praktikak, ebidentzia zientifikoan oinarrituak
 - Profesional bakoitzak berezko eta ezaugarri dituen jardunbide indibidualizatuak
55. Gasteizko Udalaren gizarte-zerbitzuen baitako Genero indarkeriaren biktimei harrera egin eta laguntzeko Onartuz prozesuan, zein irizpideren arabera kudeatzen da Udalaren gizarte-zerbitzuen arreta/harremana erasotzailearekin?
- Genero-indarkeriazko dosierra dagoenean eta bizikidetzaz hautsi denean, dossier hori gizarte-zerbitzu desberdinen artean banatu behar da (biktimententzat eta erasotzailearentzat)
 - Bizikidetzaz hautsi denean eta kasua Onarpen taldera bideratu bada, dossier bikoiztu biak (biktima eta erasotzailea) bideratuko dira, Onarpen taldeak artatzeko
 - Gainera haur-babesgabetasun egoerarik ere bada, dosierrak bikoiztu egingo dira, eta Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzuko profesional desberdinei bidaliko dira
 - Onarpen taldera bideratzea biktimak erasotzailearekiko loturak hautsi gabe gertatzen bada (nahiz eta bizikidetzaz amaitutzat eman izan), ez dira dosierrak bikoiztuko
- 56.- Zer da Gasteizko Udalaren Gizarte Inklusioaren Zerbitzuaren Onarpen taldea?

- a) Genero indarkeriaren biktimei berariaz laguntzeko psikologia, gizarte eta heziketa arloetan esku hartzeko atala.
- b) Genero-indarkeriazko kasuak hauteman, harrera egin, balioetsi eta diagnostikoa egiteko atala
- c) Genero-indarkeriazko egoerak identifikatzeko eta haustura ebolutiboaren prestatzen laguntzeko atal psikosoziala
- d) Psikologo batek, gizarte-langile batek, bi abokatuk eta laguntzaile administratibo batek osatutako atala

57.- Adineko pertsonari eragindako kalte fisikoa edo ekonomikoa egitearen edo ez egitearen ondorio izan daiteke hainbat eratan, eta jokabide horiek honela sailka daitezke (Etxeberria, Goikoetxea, Martinez, et. al.; 2013). Adierazi erantzun okerra:

- a) Arretan tematzea
- b) Engainua eta manipulazioa, adineko pertsona nahierara erabiltzeko haren baimena izan gabe
- c) Arreta desegokia edo ez nahikoa, arreta ezak edo adinekoaren beharren diagnostiko okerreko edo osatu gabeko batek eraginda
- d) Sexu-abusua edo sexu-erasoa

58.- Noiz aplikatzen da EAEko adineko pertsonenganako tratu txar fisiko eta ekonomikoak prebenitu eta hautemateko prozeduraren baitako "Tratu txarren arrisku-faktoreak prebenitu eta hautemateko galdetegia" (2. Galdetegia)? Adierazi erantzun okerra:

- a) Pertsonak bi arrisku-faktore edo gehiago dauzka prebentzio galdetegian
- b) Pertsonak tratu txarren biktima dela adierazten du
- c) Adineko pertsonak ahalmen ekonomikoa galtzen du, eta arreta gauzatzen ari den profesionalarentzat ezin azalduzkoak diren kalte fisikoak edo ekonomikoak, edo lesio fisikoak ditu
- d) Adineko pertsonak epaitegi bidez mugatuta dauka autonomia eta berarekin bizi diren senide zuzenak arduratzen dira hura zaintzeaz

59.- Hauxe da arreta soziosanitarioaren lehentasun estrategikoen zeregina:

- a) Arreta Soziosanitarioko eredu eraginkor, koordinatu eta jasangarri bat garatzea, pertsonan zentratua, bere bizi-proiektuaren protagonista den heinean
- b) Gizarte- eta osasun-arloetako profesionalen arreta hobetzearen aldeko konpromisoa.
- c) Eredu soziosanitarioa sendotzea
- d) Arreta soziosanitarioari buruzko Dekretu bat onartzea

60.- Koordinazioaren egituraketa soziosanitarioa da lehen lehentasun estrategikoa, eta barne hartzen du:

- a) Koordinazio soziosanitarioaren gobernantza-eredua
- b) Euskadiko arreta soziosanitarioa garatzeko Dekretua
- c) Euskadiko etika-batzordeak koordinatzeko komisio soziosanitarioa
- d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira

61.- Ezaugarri hauek dauzka ikerlanak Gizarte-lan indibidualizatuaren alorrean (Fernández, T. eta Ponce de León, L.; 2012). Adierazi erantzun okerra:

- a) Errealitatearen ikuspegi dinamikoa eta aldakor baten arabera bideratutako ekintzari lotzen zaio
- b) Gizarte-aldaketa lortzea du helburu
- c) Partaide edo pertsona inplikatuaren lankidetzak aktibo, kritiko eta dinamikoa ahalbidetzen du
- d) Garatutako ikerlanaren alorrean aurrekontu-inbertsioa egitea eskatzen du

62.- Gizarte-lan indibidualizatuaren alorrean egin beharreko gizarte-diagnostikoari (Fernández, T. eta Ponce de León, L.; 2012) buruzko baieztapen hauetatik, adierazi erantzun OKERRA:

- a) Prozedura sistematiko malgu eta jarraitua da, gizarte-langileari arazoaren egoerari buruzko azterlan xehatu emateko aukera ematen diona, bai eta aurrerantzean ekin beharreko esku-hartzearen ildoak zehazteko ere
- b) Egoera sozial jakin baten sintesia, interpretazioa eta ebaluazioa da, inplizituki kasuaren pronostikoa daraman
- c) Errealitate jakin bat azaltzeko eta ekintza eraldatzailea programatzeko funtsezko elementuak eskaintzen ditu
- d) Tratamendu mota desberdinak, horien iraupena eta inplikatutako profesionalak zehazteko tresna da

- 63.- Hauek dira, besteak beste, maila lokalean partaidetza-prozesuak sustatzen laguntzen duten printzipioak (Pastor, E.; 2009):
- Elkarteen mugimenduaren zeregina aintzatestea eta sustatzea
 - Herritarren beharretara egokitzen diren herritar-partaidetzako mekanismoak sustatzea
 - Partaidetza-tresnak sustatzera bideratutako ekimen eta borondate politikoak aintzatestea eta sustatzea
 - Aurreko baieztapen guztiak zuzenak dira
- 64.- Zer da ikerkuntza-ekintza Gizarte-lanean (Zamanillo, T.; 2008)?
- Ikerketa aktibo eta konprometitua da, behaketa parte-hartzailea, eta gizarte-lan kritiko baten ikuspegiarekin identifikatzen da
 - Unibertsitateak egiten duen eta argitalpen akademiko batekin amaitzen den ikerketa da
 - Banakako diagnostikoan arazo-egoeraren ikerlanaren hasierako fasea da
 - Fenomeno sozialak azaltzeko profesional edo lantalde ikerlariaren ezagutza eta iritzietatik abiatutako ikerketa da
- 65.- Zer da gainbegiraketa (Puig, Carmina; 2011)?
- Eremu psikosozialetan diharduten langileen praktika profesionalaren analisisa da
 - Meta-lan bat da, erakunde edo antolakuntza batean ikaskuntzaren, prestakuntzaren, hezkuntzaren eta arteko interfazean kokatua
 - Eguneroko praxiaren marko teorikoak eta kontzeptukoak kontrastatzen laguntzen du
 - Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira
- 66.- Gainbegiraketa-prozesuetan zenbait ikaskuntza-irakaskuntza teknika eta tresna baliatzen dira (Berasaluze, A. eta Ariño, M.; 2014):
- Kontratua, isilaldi hirukoitza, entzutea, feedbacka, konfrontazioa, etab.
 - Behaketa, ikerketa eta elkarriketa
 - Terapia sistemikoa, bitartekaritza eta orientazioa
 - Aurreko hiru erantzunak okerrak dira
- 67.- Hauek dira entzumen-trebetasunaren elementu nagusiak (adierazi erantzun okerra):
- Beste pertsonaren interesaren eta onarpenaren jarrerazko adierazpena
 - Solaskidearen portaerak arretaz behatzea
 - Modu espontaneoan eskuratzen den prozesu naturala, aurretiaz trebatu beharrik gabe
 - Hizlariaren ahozko zein ez-ahozko mezuak zuzen ulertzea
- 68.- F. Fantovak elkarreragin soziala esku-hartze sozialaren objektu gisa proposatzen du, bi dimentsiotan:
- Gizarte-inklusioa eta gizarte-bazterkeria
 - Autonomia funtzionala eta integrazio erlazionala
 - Babes soziala eta zaugarritasuna
 - Autonomia eta menpekotasuna
- 69.- Marco Marchioniren aburuz, esku-hartze komunitarioan funtsezkoa da:
- Hiru protagonistak: administrazioak (eta lehen-lehenik, toki-administrazioa), komunitate horretan edo horrekin lanean dauden baliabide tekniko eta profesionalak, eta biztanleak.
 - Esku-hartze komunitarioa biztanleria baztertuekin eta lurralde-komunitate bereziekin lotzen da
 - Prozesuaren muina ez da komunitate jakin bat, komunitate guztiak berdinak dira
 - Epe laburreko prozesuak dira, helburu oso zehatz eta neurgarriak dituztenak
- 70.- Gizarte-lanaren alorrean ezagutza ekoizteari buruzko (Ramos, C.; 2013) inplikazioei dagokienez, adierazi erantzun OKERRA:
- Ikertzeak dedikazioa, ahalegina eta denbora eskatzen ditu, eta, gainera, baita intentzionalitate berezi bat ere, gure lanbidearen izaerari berari lotua
 - Lortutako datuen eta informazioen irakurketak esku-hartze sozialean zertan lagundu dezakeen nabarmentzea
 - Dimentsio etikoa eta errealitate sozialarekiko lotura
 - Gizarte-langileen rola pertsona artatuen rolari lehenetsi behar zaio

71.- Sare-lanak eta diziplinartekotasunak:

- Eragile inplikatu guztiak koordinatzeko gizarte-langileen gaitasuna aintzatesten du
- Ekintzaren eta erabakiak hartzearen alorretako hierarkia onartzen du
- Harremanetan jartzen ditu pertsona, familia, talde eta erakundeen baliabide naturalak, eta baita horiek eskainitako zerbitzu eta programa publiko eta pribatu guztiekin ere
- Erakunde publikoen protagonismoa sustatzen du, dituzten eskumenengatik

72.- Zer eskatzen du gizarte-zerbitzuetan genero-ikuspegia txertatzeak (Del Olmo, N.; 2014)?

- Genero ikuspegia antolaketa-prozesuetan txertatzea, generoaren arabera kategorizazio sexuatu eta hierarkizatuak eragin gabe
- Genero-harreman hierarkizatueta erreproduzio-eremuaren kultur logika birsortzea
- “Emakume” sexu-kategoriarentzako kultur eta gizarte itxaropen desberdinei eusten dien estratifikazio-sistema instituzionalki eraikitako bat egituratzea
- Emakumeak gizarte-zerbitzuen zorroko zerbitzuen hartzaile gisako erreferentziei eustea, eta ez norbanakoari zuzendutako zerbitzuen logikari

73.- “El devenir del Trabajo social en clave de género” artikuluan (Berasaluze, A.; 2009), ekoizpen zientifikoaren zenbait ahultasun aipatzen dira. Adierazi zuzena EZ den erantzuna:

- Unibertsitate-egituretan gizarte-langile emakumeen muga akademikoek oztopatu egin dituzte, hein handi batean, alor honetan ikertzea, horretarako ziklo luzeko ikasketak eta doktoretza eskatzen baita
- Lanbidearen jardunak oztopatu egiten du, hein handi batean, profesionalek beren denboraren zati bat ikertzeri bideratu ahal izatea, eta, bereziki, Gizarte-lanaren inguruan ikertzeri
- Emakumeei esleitu izan zaie jakinduria enpirikoa, zein, logika patriarkalaren arabera, debalatuia izan den jakinduria-sistemetan, halako moduan non menpeko leku bat jartzen duen, ez-zientziaren muga
- Aurreko garaietako mugimendu feminista eta sufragistari lotura sendoko gizarte-langile emakumeen eskarmentua, genero-ikuspegia txertatzeko ahaleginak eta teoria feministaren ekarpenak

74.- Gizarte-lana larrialdi- eta hondamendi-egoeretan. Baieztapen hauetatik zein EZ da zuzena?

- Gizarte-larrialdia egoera ustekabeko eta programatu gabea da, zaurgarritasun-prozesuak eragin ditzake, eta berehalako erantzuna eskatzen dute
- Honela sailkatzen dira gizarte-larrialdiak: larrialdi pertsonal edo familiarra, larrialdi kolektiboa eta larrialdi handi eta/edo hondamendia
- Larrialdietako esku-hartzea anitza da, testuinguruaren arabera egokituta, baina fasetan antolatu daiteke (larrialdiaren aurreko, bitarteko eta ondorengo faseak)
- Larrialdietan, gizarte-lana larrialdia edo hondamendia gertatu den lekura espontaneoki hurbildutako boluntarioek ematen dute

75.- Gizarte-langintzan, zer da krisialdian esku hartzeko eredua?

- Laguntza-metodo bat, bizi-haustura egoeran dauden pertsonen zuzendua, beren baliabideak arazoa gainditzen eta, hartara, oreka emozionala berreskuratzen laguntzeko asmoz
- Pertsonalitatea garatzeko eredu bat, oreka dinamikoa eskuratu nahi duten indar aurkarietan oinarritua
- Pertsonen portaera behargarria ulertu eta interpretatzeko laguntza, hartara, kontzientzia aztertu eta analizatu ahal izateko
- Gizarte zein hezkuntza alorretan esku-hartzeko metodo bat, hartara pertsonen parte-hartzea sustatu nahi duena

76.- Gizarte-langintza indibidualean, esku-hartzea diseinatzeko faseak hiru ezaugarri nagusi ditu. Adierazi erantzun okerra:

- Helburu zehatz batzuk mugatzen duten xedea du, eta horiek lortzera bideratzen dira ekintzak
- Haren egiturak zehaztasunez janzten du esku-hartzea
- Ahozko akordioa da, berariaz berresten dena delako pertsona edo familiarekin egiten diren elkarrizketetan
- Orientazioa eskaintzen du lortu nahi denarekiko, hartara emaitzak aurreratu daitezkeelarik

- 77.- Zerbitzu edo zentro batean pertsonagan zentratutako arretaren eredua aplikatzen denean, ulertzen da:
- Pertsona oro bakarra eta errepikaezina dela, eta duintasuna duela, hain zuzen ere berezitasunaren funtsezko arrazoa, errespetatu behar dena
 - Erreferentziako profesionalak hartu behar dituztela erabakiak familiaren ordeztuz
 - Zerbitzuek ezartzen dituztela pertsonentzako bizi-kalitate maila desiragarriak
 - Familiak ez dutela esku-hartze planetan parte hartzen, pertsonak dementziaren bat duten kasuetan izan ezik
- 78.- Pertsonagan zentratutako planifikazioan (Rey, Ana M^a 2015):
- Pertsonak hartzen ditu erabakiak, eta familiak soilik bigarren maila batean
 - Lehenetsi egiten da arlo teknikoa arlo etikoaren gainetik
 - Arazoa zerbitzuen hartzailean dago
 - Batez ere helburu operatiboen arabera planifikatzearen aldeko metodologia baliatzen da
- 79.- Pertsonengan zentratutako arretaren ereduaren erreferentziako profesionalen figuraren zereginen artean (Rey, Ana M^a; 2015) EZ dago:
- Pertsonari informazioa eta orientazioa ematea
 - Laguntza teknikoa, pertsonala, akonpainamendua eta jarraipena eskaintzea
 - Pertsonaren ordeztuz erabakiak hartzea
 - Erantzun integralak egituratzea eta, hala behar izatera, beste babes-sistema batzuetara bideratzea
- 80.- Pertsonaren duintasuna esku-hartze sozial eta soziosanitarioaren funtsezko abiapuntuetako bat da. Adierazi baieztapen hauen artean okerra dena:
- Duintasuna pertsonak orok berez duen balorea da, sexua, adina, sinesmenak eta abar alde batera utzita
 - Duintasuna pertsona bakoitzak bere autonomia-gaitasunaren edo izaera moralaren arabera duen balorea da
 - Duintasuna prezio ororen gainetik dago eta, horrenbestez ez du baliokiderik onartzen
 - Duintasunak berekin darama pertsonen borondatearen errespetua
- 81.- Osasun mentaleko arazorik edo adimen-desgaitasunik duten pertsonak bazterketa nabarmena pairatu beharrean dira, gaur egun ere, mundu zabalean. Horren harira, baieztapen hauetatik zein da okerra?
- Arazo nolabait larriak dituzten pertsonak lotsa edo errudun-ustea (autoestigma) dute, sentitzen duten arbuioak eraginda
 - Estigma gaixotasun psikiatrikoren bat pairatzen duten pertsonetara beldurra eta arbuioarekin lotzen da, eta aukera ugari (lanekoak, hezkuntzakoak, ekonomikoak...) eta gizarte- eta osasun-arretaren galera eragiten ditu
 - Estigmatizazioaren oinarrian aurreiritziak, informazio eza eta informazio okerra daude
 - Bada nolabaiteko gradazioa gaixotasun mentaletako gizarte-tolerantzia: errazago onartzen dira gaixotasun larriak (eskizofrenia...) eta okerrago arazo ohikoak, depresioa eta antsietatea esaterako
- 82.- Baieztapen hauetatik, zein EZ dator "Hirugarren Sektore" kontzeptuarekin bat, erakunde multzo den aldetik (Pastor, E.; 2009)?
- Hirugarren Sektorea funtsezko espazioa da identitate zibikoaren eraikuntzan
 - Hirugarren Sektorea funtsezko espazioa da herritarrek eguneroko bizitzan parte hartzeko
 - Hirugarren Sektoreak lagundu egiten du parte-hartzearen bitartez ongizate orokorra zabaltzen
 - Hirugarren Sektoreak erakundearen menpekotasun ekonomikoari eutsi behar dio, kudeaketa gardena izango bada
- 83.- Baieztapen hauetatik, zein EZ da zuzena? Kapital sozialaren sorkuntzara bideratutak, *empowerment* komunitarioak hiru dimentsio estrategiko partizipatibo dakartza berekin (Pastor, E.; 2009):
- Harreman inklusiboen sareak sortzea eta sendotzea
 - Sektarismoa, klientelismoa eta zerbitzu publikoen pribatizazioa gaintzea
 - Atzemandako beharren inguruan konpromiso kolektiboa piztea
 - Parte-hartze deszentralizatuko prozesuak sustatzea eta antolatzea
- 84.- Historia Sozialaren inguruan, adituak bat datoz iritziz honetan:
- Lanabesa da, hau da, profesionalak egunerokoan baliatu beharreko tresna
 - Lanabes dinamikoa da, hau da, etengabe haren egitura eta formatua aldatzera behartzen ditu profesionalak
 - Lanabes zientifikoa da, zenbait lanbidek (horien artean Gizarte-lana) konpartitzen dituzten metodologiari eta teknika sozialen erabilerrari erantzuten die
 - Balio-denbora mugatua (urtebete ingurukoa) duen lanabesa da

- 85.- Txosten soziala garrantzi handiko tresna da Gizarte-lanean. Baieztapen hauetatik zein EZ da zuzena?
- Txosten soziala beste lanbide batzuetatik bereizten gaituen egintza da
 - Txosten soziala osatu, argudiatu eta defendatzea Gizarte-lanari dagozkien zeregin eskusiboak dira
 - Txosten soziala ez da esku-hartze profesionala kontrolatzeko eskakizun formal bat baino
 - Txosten sozialaren garrantzia pertsona edo familien bizitzan izan dezakeen eraginean datza, eta, horrenbestez, argia, objektiboa eta interpretatzeko aukerarik gabea izan behar du
- 86.- Hauek dira Txosten Sozialaren (Goñi, M.J.; 2008) kalitate teknikoak:
- Datuen fidagarritasuna
 - Terminoen zehaztasuna eta azalpenen argitasuna
 - Argudiatze didaktikoa
 - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira
- 87.- Zer dira balorazio sozialaren eskalak (Goñi, M.J.; 2008)?
- Estatistikak balioztatutako tresnak dira, diagnostiko soziala egiteko aukera ematen dute
 - Gizarte egoerak identifikatzen laguntzen dute, eta/edo aurretiaz identifikatutakoa kuantifikatzen
 - Gizarte diagnostikoari laguntzeko lanabesak dira, esku-hartze profesionalaren oinarriak ezartzeko tenorean arlo garrantzitsuak sistematikoki baloratzea baitakarte
 - Aurreko baieztapen guztiak zuzenak dira
- 88.- Gizarte-lanean baliatzen den tresna bat da genograma (Goñi, M.J.; 2008), baina zer da zehazki?
- Hiru belaunalditako familia sistemari buruzko informazioa antolatzeko eta analizatzeko lanabesa
 - Zenbait datu pertsonal (filiazioa, lanekoak, hezkuntzakoak eta ekonomikoak) biltzen dituen grafikoa
 - Familiei ematen zaion agiri bat, beren egoera pertsonal eta familiarraren laburpen gisa
 - Barne-erabilerako tresna bat, ezin daitekeena inori emango zaion txosten edo bestelako inolako agiritan txertatu
- 89.- Gizarte-lanaren jardun profesionalan agiri mota ugari baliatzen da; nahiz eta modu desberdinean izendatzen diren, zerbitzu edo erakundearen arabera, antzeko helburuak betetzen dituzte. Hauek dira:
- Fitxa-soziala, elkarrizketen erregistroa, txosten soziala, genograma eta gizarte-balorazioko eskalak
 - Familia-harremanen mapa, ekomapa, eta harreman fitxa
 - Jarraipen-orriak, jardueren erregistro-fitxak, memoriak...
 - Aurreko aukera guztiak zuzenak dira
- 90.- Elkarrizketa Gizarte-lanean (Ariño, M.; 2008) EZ da:
- Elkarrizketa solasaldi eraikitzailea helburuek gidatutakoa. Nahi denean aztertu ahal izango dira helburu horiek, erreflexiboa eta, batez ere, parte hartzailea baita prozesu hori.
 - Eraikitze komunikatiboa, eta ez diskurtsoen erregistro hutsa “subjektuari hitz egiten diotenak edo subjektuaz hitz egiten dutenak”
 - Dinamikoa; izan ere, sortu, eraiki eta berriro eraikitzen da garatzen ari den praktikaren bilakaeran
 - Funtsean, informazio-bilketa, pertsonaren behararen eta eskaritik abiatua
- 91.- Elkarrizketak xedearen arabera sailkatzen dira (Ariño, M. 2008):
- Orientatzekoak eta motibatzeak
 - Informatzeko eta aholkatzeak
 - Teraupetikoak, ebaluatzeak eta jarraipena egitekoak
 - Aurreko erantzun guztiak izan daitezke
- 92.- Hauek dira gizarte-langileak elkarrizketan izan beharreko jarrerak (Ariño, M. 2008):
- Autodeterminazioa eta indibidualizazioa
 - Begirunea, onarpena eta empatia
 - Justizia eta sekretu profesionala
 - Aurreko erantzun guztiak izan daitezke

- 93.- Gizarte-lanean, etxeko bisita tresna nagusietakoa da (Ariño, M.; 2008):
- Erakundeak eta komunitatea uztartzeko, eta, gainera, komunitatearen baliabideak eta gizarte laguntzako sareak bertatik bertara baloratzeko aukera ematen du
 - Burnout* delakoa saihesteko, bulego eta lantokietatik irtetera behartzen duelako
 - Prestazio ekonomikoak eta beste zerbitzu batzuk kontrolatzeko eta horien jarraipena egiteko
 - Etxez etxeko laguntza programa bat eman edo ez baloratzeko
- 94.- Begoña Román egileak *Ética de los Servicios Sociales* liburuan dioenaren arabera:
- Etikak, Gizarte langintzari aplikatuta, ziurganbetasun baldintzatan erantzukizunak hartzean eta arriskuak kudeatzean datza
 - Etikak, Gizarte langintzan, pertsona artatuek profesionalen jardunean konfiantza izatea eskatzen du Horretarako, Etikak erabakiak argudiatu beharra gogorarazten die profesionali eta erakundeei
 - Etikak Gizarte langintzari aplikatuta, profesionalak artatzen dituzten pertsonen bizia ahal den neurrian hobetzen saiatzen da, haiek baitira gizarte langintzako profesionalen izateko arrazoi
 - Aurreko baieztapen guztiak zuzenak dira.
- 95.- Hauxe gomendatzen dute gizarte langintzan konfidentziasunaren gaineko gidek:
- Norberaren historia sozio-pertsonala eskuratzeko duen eskubideen eta eskubide horrek dituen mugen berri eman behar diegu erabiltzaileari Komenientziari buruz zalantzarik izanez gero, informazio nolabait konplexua jasotzeko duen ahalmena baloratu beharko dugu
 - Berehala eta mugarik gabe bideratuko zaio haren historia sozio-pertsonala eskuratzeko eskubidea eskatzaileari, al bait onura gehien atera dakion
 - Pertsona gai ez bada, familiak eskura dezake historia sozio-pertsonala, batere mugarik gabe
 - Esku-hartze prozesuan zehar inplikazio zuzen edo zeharkakoa duten profesionalak erabiltzailearen historia eskuratu ahalko dute, batere mugarik gabe
- 96.- Gizarte langintzan intimitateari buruzko gidaren arabera, eta ikuspegi etiko baten arabera (adierazi aukera OKERRA):
- Intimitatearen errespetuak jarrera jakin bat eskatzen du, alegia, beste pertsona izaki baliotsu eta bizitza pribatu berezkoaren jabe gisakotzat hartzekoa
 - Intimitatearen babesak adierazten du pertsona guztien intimitaterako eskubidea burutzeko profesionalak eta erakundeek duten betekizuna, pertsona horien egoera eta ahalmena gorabehera
 - Tratu abegikorrak adierazten du haren ongizatea xede duen interakzio pertsonal batetik abiatuta eskaintzen zaiola laguntza edo zaintza beste pertsonari
 - Tratu abegikorrak ez du ekiditen pertsonaren intimitatea ukitzen duten zenbait esku-hartzeren aurrean hura inbaditu, mehatxatu, lotsatu edo umiliatua sentitu ahal izatea, ondoezik edo sufritzen
- 97.- 14/2011 Foru Dekretuaren arabera, eginkizun hauek dauzkate Arabako Lurralde Historikoan Gizartegintzan etika batzordeek.
- Kasu zehatzetan, esku hartzaileen arteko gatazka etikoko egoeretan, erabakiak hartzeko prozesua aztertu, aholkatu eta erraztea
 - Gatazka etikoko egoeretarako (zehatz nahiz orokorrak) jardura protokoloak edo gomendio agiriak egin eta proposatzea
 3. Arabako Lurralde Historikoko gizarte zerbitzuekin lotutako organizazio desberdinetako profesional edo boluntarioen eta Gizartean Esku Hartzeko Etika Batzordeko kideen prestakuntza lagundu eta sustatzea, etikari buruzko gaietan
 - Aurreko baieztapen guztiak zuzenak dira.
- 98.- Hauek dira bioetika garaikidearen printzipioak:
- Malefizientzia eza (ez kalterik egitea), justizia, autonomia eta ongintza
 - Maximoen etika eta minimoen etika
 - Pertsonen duintasunaren errespetua eta autonomia
 - Autonomia, intimitatea eta konfidentziasuna

99.- Zer da Gizarte Langintzako Kode Deontologikoaren arabera (2012)?

- a) Gizarte langintzan diharduten profesionalen jarduna gidatu behar duten balio, printzipio eta arauen multzoa
- b) Gizarte langintzan diharduten profesionalen jarduna gidatu behar duten lege eta dekretuen multzoa
- c) Gizarte langintzan diharduten profesionalen jarduna gidatu behar duten protokolo eta prozeduren multzoa
- d) Gizarte langintzan diharduten profesionalen jarduna gidatu behar duten printzipio eta eskubideen multzoa

100.- Gizarte Langintzako Kode Deontologikoaren arabera (2012), eskubide eta betebeharren adierazpideetako hauen arteko zein EZ DA ZUZENA?

- a) Gizarte langintzako profesionalek, beren lanbidean dihardutenean, gizaki, talde eta komunitateen indarrak eta ahalak identifikatzeko eta garatzeko helburuaz jarduteko ardura izaten dute, haien ahalmena indartzeko
- b) Gizarte langintzako profesionalek pertsona erabiltzailearekin elkarlan estuan egiten dute lan, haiei parte-hartzera motibatzen diete eta behar den errespetua agertzen dute haien interesekiko eta esku-hartzean zerikusia duten gainerakoen interesekiko
- c) Pertsona erabiltzailea beste zerbitzuren batera eraman behar baldin bada, gizarte langintzako profesionalak harentzat ahalik eta modurik erosoenean bideratuko du, esku-hartzeak etenik izan gabe
- d) Gizarte langintzako profesionalari bere jardun profesionalak pertsona erabiltzailearekiko eman lekiokoen boterea edo nagusitasuna hark ez du inoiz erabiliko bere probetxu, interes edo onurarako